

BALIO PROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konpontzen dugu?

Gure produktuak gizarteko hainbat arazo konpontzen ditu. Kutsadura murriztea da gure lehenengo helburua. Kutsadura murriztuz, munduari bizitza hobea izateko aukera ematen diogu. Gainera, argi energiaren erabilera sustatzen dugu, energia toxikoaren erabilera murriztuz eta argi energiaren erabileraren garrantzia erakutziz.

Zer lortzen dugu honekin?



Honekin lortzen duguna, ingurumenari on egitea da. Tintaren kontsumoa murrizten dugu, beraz ez da produktu toxikoen erabilera sustatzen. Gainera, energia kutsakorrik erabiltzen, argi energia barizik.

Generoarekin lotuta, lau emakumez osatutako talde bat gara, eta gure produktuak baliabide berdinak eskeintzen dizkio mundu guztiari, berdin dio neska edo mutila den.

Zer bereizten gaitu eta zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?

Produktua gainerako inprentak baino garestiagoa den arren, ez denez tintarik erabili behar, azkenean, askoz merkeagoa da, inprenta eta papera bakarrik ordaintzen direlako, garestiena erostea ekidituz, hau da, tinta. Honez gain, ez du elektrizitatea erabiltzen argi energia erabiltzen duelako.

INGURUMENA

Gure imprenta ekologikoa da, ez du energia elektrikorik erabiltzen, eguzki energia baizik, beraz, ingurumenari asko laguntzen diogu ez dugulako kutsatzen.

Gainera ez du erabiliko tinta normala, baizik eta paper berezi bat erretzen dena eguzki izpiekin eta hori erabilikoa da.

GENERO BERDINTASUNA

Gure produktua sortzeko, ez dugu generoa kontuan hartu. Emakume zein gizonezkoek erabil dezakete eta edozeinentzako izan daiteke baliagarria.

Enpresaren sortzaileak lau emakume gara eta gure enpresan egongo diren langileak emakumeak eta gizonak izango dira.

GIZARTE BERRIKUNTZA

Era berritzaile batean laguntzen dio ingurumenari, energiariarik eta tintarik ez duelako erabiltzen, beraz, energia berriztagarria erabiltzen du, ingurumenari langunduz eta tintaren erabilera murrizten du, kutsadurarik ez sortzeko eta toxikoen erabilera ekiditzeko.